

Mugurutza, Gorrotxategi eta beste etimologia zenbait: eskuinak ez dakar zorionik^{1,2}

Mugurutza, Gorrotxategi *and other etymologies:*
being right does not mean being happy

Julen Manterola*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: In Mitxelena's analysis, the names *Mugurutza* and *Gorrotxategi* are based on *mukuru* 'filled' and *gurutze* 'cross' respectively. This paper offers an alternative etymological account of these surnames, by linking them to *Mugaburu* and *gorri* 'red'. The subsequent sections evaluate the Basque interpretation of the text contained in the hand of Irulegi. To this end, detailed etymologies of *Lekuine* and *eskuin* 'right' are provided; the goal is to build a precise history of the lexicalized adjectival phrases that have *on* 'good' as a head, in order to compare it to that of *zorion* 'happiness'. The comparative method is thus revisited, by comparing elements that belong to different stages of the same language; this is illustrated with a Latin-Romance example. The conclusion is that the available evidence is not sufficient to identify the 2.100 old segment

¹ Lourdes Oñederraren eta Koldo Zuazoren omenaldietan ohoratuen deiturari buruzko artikuluak osatu ondotik, Jose Ignaziok «kargu hartu» zidan, ea zergatik ez nuen gauza bera egin Joaquín Gorrotxategiren lehenagokoan. Hementxe aurkituko du han behar zuena. Agian hurrengo batean izango du *Hualde*-ri buruzko zerbait, ezer interesgarririk banu esateko. Horretaz gain, gogo betez eskaintzen dizkiot Irulegiko Eskuari dagozkionak, ustez eta, okerreanean, *eskuin*-i eta *Lekuine*-ri buruzkoak interesatuko zaizkiola. Gogo betez, eta esker onez, esku onez gidatzen nauen maisuari.

² Céline Mounole, Gidor Bilbao, Markel Lizasoain, Joana Ibargarai, Jon Basauri, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño, Julen Bernaldo de Quirós, Arrate Isasi-Isasmendi eta Idoia Arruti eskertu nahi ditut, aukera izan baitut artikulu honetako ideiak haiekin partekatzeko. Okerrak nire. Ondoko proiektu eta ikertaldeek laguntza eman dute artikulu hau garatzeko: «*Monumenta Lingue Vasconum 6: Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca*» (*Ministerio de Ciencia e Innovación*, PID2020-118445GB-I00) eta «*Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia / Diachronic Linguistics, Typology and the History of Basque (DLTB)*» (Eusko Jaurlaritza, IT1534/22).

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Julen Manterola. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitatean ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – julen.manterola@ehu.eus – https://orcid.org/0000-0002-2381-183X

Nola aipatu / How to cite: Manterola, Julen (2023). «*Mugurutza, Gorrotxategi eta beste etimologia zenbait: eskuinak ez dakar zorionik*», ASJU, 57 (1-2), 649-669. (https://doi.org/10.1387/asju.25970).

Jasoa/Received: 2023-07-08; Onartua/Accepted: 2023-09-22.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

string SORION with the Basque phrase *zorion*, and that without additional evidence their apparent similarity is nothing but a linguistic pareidolia.

KEYWORDS: *Mugurutza*; *Gorrotxategi*; *eskuin* ‘right’; etymology; hand of Irulegi; linguistic pareidolia.

LABURPENA: *Mugurutza eta Gorrotxategi deituren lehen osagaia mukurru eta gurutze hitze-kin lotu zituen Mitxelena. Artikulu honek bestelako azalpen etimologiko bat ematen die abizenoi, Mugaburu eta gorri izenekin lotuz, hurrenez hurren. Irulegiko Eskuko testuaren euskararen bidezko interpretazioa ebaluatzen dute ondoko atalek: horretarako, Lekuine herri-izenaren eta eskuin izen arruntaren xehetasun etimologikoak argitzen dira; helburua da on adjektiboarekin lexikalizatuta dauden sintagmen historia xehea egitea, zorion-enarekin erkatzeko. Metodo konparatiboa gogora ekartzen da horrela, kasu honetan hizkuntza beraren barruko garai ezberdinetako elementuak konparatuz; latin-erromantzezko adibide batek osatzen du azalpena. Ondorioa da ez dagoela aski oinarririk duela 2.100 urteko idazkuneko SORION segmentu segida euskarazko zorion sintagmarekin berdintzeko, eta, datu gehigarriak izan ezean, haien itxurazko antza pareidolia linguistiko huts bati zor zaiola.*

HITZ GAKOAK: *Mugurutza*; *Gorrotxategi*; *eskuin*; *etimologia*; *Irulegiko Eskua*; *pareidolia linguistikoa*.

1. Sarrera

Etimologiazko lanetan ohikoa da bereiz aztertzea hitz arruntak eta izen bereziak, eta aparte tratatu izan dira batzuk eta bestetzuk. Alde horretatik, esanguratsua da armenieraren hiztegi etimologikoa (Martyrosian 2010): hiztegiaren zati nagusiak, 668 orrialde, ondare zaharreko hitzen etimologiak biltzen ditu, baina autoreak egoki iritzi zion toki-izenen etimologiari buruzko 17 orrialdeko atal labur bat gehitzeari. Gurean badu tradizioa izen berezien azterketak, eta horren erakusgarri dira toki-izenen hiztegi historiko-etimologikoak: Nafarroa Behereko herri-izenena, Arabakoena (Salaberri 2004, 2015), Gipuzkoakoena (Salaberri & Zaldua 2020), Nafarroako herri-izenena eta ibai-mendiana (Belasko 1999, 2000), etab. Sareko baliabide bikainak ere badira gai berari eskainiak, hala nola Alfredo Oriberen bloga (euskal-onomastikaz.blogspot.com) eta Belaskorena berarena (mikelbelasko.blogspot.com). Pertsona-izeni dagokienez, erreferentziazkoa da, halaber, Salaberriren lana (2009).

Hitz arruntek ez bezala, izen bereziek pertsona edo toki jakin bati egin ohi diote erreferentzia. Ezaugarri horrek haren formaren gorabehera diakronikoetan ere badu eragina, eta horretaz honela dio Durkinek (2009: 272): «Name studies also give evidence for sound changes and other developments which have little or no parallel elsewhere in a language». Fonologia historikoan, beraz, ezinbestean onartu beharra dago badagoela aldaketa erregularretik haragoko mundurik (Hualde 2006: 449-450); besterik da haren balio metodologikoa haztatzea, dagokion neurrian balioesteko, eta aldaketa irregularren esparrua behar bezala mugatzeko.

Aldaketa irregularren adibide politik dira Basaurik (2022: 9, 13) Soraluzeko toponimiaren berri ematean nabarmendu dituenak: iturri eta aurkintza baten izena da gaur *Áskabéitxi*, eta *aska* izena dagoelako ustea dago zabaldua herritarren artean; dokumentazioak, ordea, *Ayzcaraeguibeytia* forman dakar 1588an, eta datu horren eta besteren argitara *haitz* + *garai* + *hegi* + *beitia* analizatu behar da izena, autore honek dioenez. Bestalde, gaurko *Martikortúa* izena, ‘Martikoren ortu’ edo interpreta lezake

inork, baina dokumentazio historikoak agerian uzten du ez dagoela *Martiko*-rik bertan: *Barrutiko hortua* (1563), *Barticorta* (1810), *Barticortu* (1810). Hau da, *barruti*-k hitz arrunt gisa *barruti* izaten segitzen du Soraluzeko hizkeran,³ baina *marti* bilakatua da toki-izen jakin batean.

Durkinek (2009: 273) ohartarazten duen bezala, hizkuntzalariak, halakoak aztertzean, maiz beharko ditu onartu hiztegi arrunteko item lexikoak aztertzeke darabiltzan arau fonetiko eta morfologikoez bestelakoak. Izen bereziek beste unitate linguistikoetan gertatzen diren bilakabide fonologiko berberetako asko izaten dituztela nabarmenduz abiatzen du Durkinek (2009: 271), hala ere, izen berezietako forma aldatetari eskaintzen dion atala. Artikulu honek bitako adibideak dakartza: *Mugurutza* (§ 2) eta *Gorrotxategi* (§ 3) deituren etimologiek erakutsiko dute hitz hauen bilakaera fonologikoa arruntzat joko genukeenaren mugan dagoela, aski bilakabide fonetiko ohikoak izan baitituzte, baina, aldi berean, aski modu espezifikoan aplikatu zaizkielako, eta horrek zaildu baitu haien interpretazio etimologikoa. Irulegiko Eskuko tesuaren euskal interpretazioaren hipotesiaren ebaluazio bat eskaintzen dute ondoko atalek (§§ 4-6). Euskal hipotesiaren kronika labur batekin abiatuta (§ 4), *Lekuine* herri-izenaren, *eskuin* izen arruntaren eta *aitona*-ren aldaeren deribazio fonetikoa xehakatzen du hurrengo atalak (§ 5), biek dutelako *on* bigarren osagai moduan. Horietatik ikasitakoek erakutsiko dute zenbateraino den zilegi, termino linguistikoetan, duela 2.100 urteko *sorion* segida bat euskara historikoko *zori on* sintagmarekin konparatzea (§ 6).

2. *Mugurutza* deituraren etimologia

Mitxelenak (1973: 130) uste du *mukuru* egon daitekeela izen honen oinarrian. Esanahiaren aldetik, argitzen ez badu ere, badirudi pentsatu beharko litzatekeela *mukuru*-ren ‘pila, meta’ duela gogoan, edo hori da, izatekotan, etimologia honekin hobekien letorkeen adiera: ugaritasunezko *-tza* atzizkia baitu, ‘pila, meta multzo’ edo litzateke izen honen esanahi etimologikoa. Azalpena ez litzateke hain argia *mukuru* ‘gainezka’-tik zuzenean abiatuz gero.

Aukera honek ageriko arazo bat du, bigarren silabako herskariari dagokiona: izan ere, /k/ herskari ahoskabera du beti hitz honek bigarren silaban, eta euskararen barrenean ezin da azaldu ustezko *VkV* > *VgV* ahosuntzea. Ezaguna da ahosuntze hau erregularra dela gaztelaniaz bokalartean, baina aldaketa hau euskararen barrenean ez da gertatu, edo ez dago aski daturik ziurtatzeko halakorik inoiz izan denik euskaraz (*FHV*, 233-234). Mitxelenak, jakina, ez zuen euskararen barreneko *mukuru* > ***muguru* modukorik proposatzen, eta beste bide bat landu zuen: euskal *mukuru*-k jatorri aitzin-erromantzea du, cf. lat. *cumulus* ‘pila, meta’, eta forma honetatik **kumuru* du gu lehenik, metatesiz *mukuru* ezaguna;⁴ **kumuru* horretatik, hitz hastapeneko

³ Jon Basauriri eskertu behar diot datu hau ziurtatu izana.

⁴ Beste aukera bat litzateke pentsatzea aitzin-erromantzez gertatu zela *cumulus* > **muculu* metatesia, eta halako formaren bat hartu zutela euskal hiztunek. Alabaina, hizkuntza erromantzeetan ez dut aurkitu halako metatesirik: *cumulus* > **culumus* onartu ohi da, gaztelaniazko *colmo* azaltzeko (*DCECH* 2, 139b, s.v. *colmo*). Hizkuntza galo-erromantzeetan ez dut metatesia lukeen aldaerarik aurkitu (*FEW* 2.2, 1527-1528, s.v. *cūmulus*).

ahostuntze erregularrarekin **gumuru* izango genuen, eta honen metatesiz erdiesten du Mitxelenak **muguru*. Alabaina, honen arazoa da **gumuru* eta **muguru* modukoak ez daudela inon dokumentatuta euskaraz hitz arrunt gisa.⁵

Bestelako azalpen bat dakar Garatek (1972: 139): oinarri handirik gabe, ‘ibi, igarobide’ esanahia lukeen *-uza* atzizkia ikusi nahi du autore honek, *Muguruza* izenari «vado del pedregal» esanahi etimologikoa emanaz. Badirudi, hortaz, lehen osagai gisa *muger* ikusten duela. Alabaina, balizko *-uza* atzizki horrek (*-uz* eta *-utxa* aldaerak ere omen ditu) ez du aski irozgarririk, eta Garatek aipatzen dituen leku-izenek bestelako azalpena, argiagoa, izan lezakete (*Mesperuza*, *Artikutza*, *Altzuzá*) edo ez dira azalpen errazekoak (*Zarautz*, *Atutxa*...). Bestela ere, *-tza* atzizkia dagoelako hipotesiari heldurik, *Mugertza* eta *Mugartzza* ditugu *muger*-ekin.

2.1. Proposamen berria: *Mugaburu-* > *Muguru-*

Mitxelenaren eta Garateren proposamenaz bestelakoa dakar artikulu honek: *mugaburu* dago *Mugurutza* deiturako *muguru-* hasiera horretan. Izan ere, beste leku-izen batzuetan ondo lekukotua dago *mugaburu-* > *mugauru-* > *muguru-* aldaketa, eta datu horien berri dakarte ondoko azpiatalek. Laburbilduz, hipotesi honek argudiatzen du *Mugurutza* izenaren forma etimologiko osoa **Mugaburutza* dela, osaera morfologikoz *muga* + *buru* + *-tza*; ziur asko lehenik *Mugaburu* izen-elkartua sortuko zen, eta honi gehituko zitzaion *-tza* eratorpen atzizkia. Azkuek dioenez (*Morf*, § 108), ugaritasuna adierazten du atzizki honek; horrela bada, ‘mugaburuak diren tokia’ litzateke izenaren esanahi etimologikoa. Bestela, pentsatzen badugu *-tza* atzizkiak ‘toki’ adiera garatu duela jatorrizko pluraltasunaren adierazpidetik, ‘mugaburu den tokia’ ere izan liteke.

2.2. *Mugurutza* Erdi Aroan

Nire corpusean (ikusi Manterola 2015 eta *EHHE* laburduretarako), *Ynnigo Sanches de Muguruça* (*ArchAzkoit* 1413) da deitura honen adibide zaharrena. Debako, Elgoibarko, Ondarroako, Bergarako, Arrasateko, Mutrikuko eta Zumaiako artxiboetako dokumentuetan aurkitu ditut adibide gehiago (*ArchBergIII*, *ArchDebaI*, *ArchDebaII*, *ArchElgoi*, *ArchMondIV*, *ArchMutr*, *ArchOndar*, *ArchZumai*), eta badirudi, beraz, Deba ibaiaren ingurukotzat har daitekeela abizen hau. Beste ibarretako adibideak ez dira askoz urrutiagokoak, bestela ere: lehen lekukotasuna Azkoitikoa da eta Ondarroako artxibokoak Markinako Mugurutzatar bati egiten dio erreferentzia; Zumaiako artxibokoak, berriz, Elgoibarko Mugurutzatar baten berri ematen du. Gaur egun ere, deitura honen ugaritasunaren lekuko, *Mugurutzatarren arku*a dugu Elgoibarren.

2.3. *Mugaburu(a)* leku-izena gaur eta Erdi Aroan

Badira gaurko Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan *Mugaburu* edo *Mugaburu*a izena duten lekuak (*EAETop*): Erandion, Orozkon eta Okondon baserri banak dute izen hori,

⁵ Bai, ordea, latinezko *cumulus*-ekin lotua bide dagoen *gonburu* (*FHV*, 331), baina bokalismoagatik badirudi forma honek tarteko erromantzeren bat gehiago izana duela.

auzo-izen moduan ere bada Orozkon bertan eta Aiaran (honetan, *Mugaburugotxi* auzoa ere bada), eta Bergaran *Mugaburua* basoa dago; *Mugaguru* baserria ere bada Bizkaiko Arrietan. Araban, gainera, *Mugaburua* izeneko barrutiak zerrendatzen ditu López de Guereñuk (*TopAlav*) Aberasturin, Azazetan, Mendibilen, Miñaon eta Zekuñan, eta, besteak beste, *Mugaburu* izeneko lur-sailak Dulantzin eta Eharin; Olabezarko (Aiara) *Mugaburu* auzoaren izena ere jaso zuen, haren *Mugauru* aldaerarekin batera. xix. mendeko Ipar Euskal Herrian (*IparTopI*) eta gaurko Nafarroan (*NafTop*), ordea, ez dut aurkitu *Mugaburu* edo *Mugaburua* moduko izenen adibiderik.

Erdi Aroan, berriz, Donapaleun lekuko izan zen *Per Ar. de Mugaburu* (*ColBNavII* 1395) baten berri dugu. Hauxe da lehendabizikoa, eta ekialdeko bakarra, nire corpusen, bederen. Bestela, Bizkaian erraz aurki daitezke adibideak: cf. Mundakako *Martin Lopes de Mugaburu* (*ArchDurIV* 1456), Bilboko *Maria Dias de Mugaburu* (*VecBilb* 1463), Bermeoko *Pero Martines de Mugaburu* (*ArchLeqI* 1474); Orozkon maiz agertzen dira, cf. adibidez *Iohan Sanches de Mugaburu* (*SimancVizcIV* 1483), geroagoko beste hainbaten artean. Gipuzkoan ez dut adibiderik topatu, baina bai Araban: cf. Gobeoko «término de Mugaburua» (*ApeoVit1* 1482).

Datu hauen argitan, bistan dago *Mugaburu(a)* leku-izena aski ohikoa dela Euskal Herriko mendebaldean, Arabako eta Bizkaiko lurretan, batez ere.

2.4. *Mugaburu* eta haren gainean osaturiko beste leku-izenak

Artikulu honetan lantzen den proposamenaren alde gutxienez hiru lekukotasun sorta bil daitezke, aurreko atalekoen osagarri. Lehenik, Galdakaoko *Mugaburu* eta *Muguru* formen alternantzia dugu; gaur kale baten izena da *Muguru* herri honetan. González de Duranak eta Barañanok (1981: 489) Egia-Zabala auzunean 1636ko *Mugaburu* baserria dakarte eta, itxuraz inguru berean, *Mugueburu* izeneko soro bat, 1944an zereal-zelaia zen *Muguru* eta *Muguru-Solo* izeneko beste soro bat. Rosek (1999-2005) eginiko toponimia-bilketan, bestalde, *Mugaburu* eta *Mugaburusolo* ditugu. Lehenago ere jaso zuen Eleizalde (1933: 299) *Muguru* Galdakaon. Itxura gutzitan arabera, izen beraren aldaeren aurrean gaude.

Bigarrenik, Erandioko *Mugaburu* baserriaren izena dugu: Lasak (2005-2008) dioenez, «[a]hoz *Muguru* esaten diote, bokalarteko *b* kontsonantearen galera eta bokal asimilazioaren eraginez». Ahoz jasotako lekukotasun gehienek *Muguru* modukoak ematen dituzte; dokumentazioan, berriz, 1932koa da forma honen lehen adibidea, 1586-1595tik ugari dokumentatuta dagoen *Mugaburu* osoagoaren ondoan. Ikusi orobat Lasa (2009: 42).

Azkenik, Miñaoko *Mugaburu(a)*, *Mugaburugana* eta *Mugaburupea* izenen aldaerak ekarri behar dira hizpidera. Martínez de Madinaren (2010: 421-423) lanean daude jasoak. Miñao Nagusiko *Mugaburu* 1593an dago dokumentatuta lehendabizikorik, artikularekin 1594an, eta geroztik batez ere artikularekin. Esanguratsuek dira *Mugaburugana*-ren aldaerak: 1703, 1791 eta 1806 urteetan forma osoan dago dokumentatuta, baina 1871n *Mugaurugana* dugu eta *Mugurugana* 1875ean. Orobatsu gertatzen da *Mugaburupea*-rekin: forma osoan 1707, 1737, 1816 eta 1832 urteetan dugu, eta *Mugurupea* forma laburtuan 1798, 1851 eta 1856 urteetan.

Miñaoko adibideotan badirudi *Mugaburua* dugula, osorik, inongo lenizio eta laburtzerik gabe, *-gane* edo *-pe* moduko zehaztapen gehigarririk ez dagoenean. Berrel-

karketa gertatu denean, ordea, dela *-gana*, dela *-pea* gehitu zaizkionean *Mugaburu-ri*, izen berri luzeagoak lenizioak eta laburtzeak izan ditu.

Datu hauek begi-aurrean hartuta, argi dago *Mugaburu-* > *Mugauru-* > *Muguru-* aldaketa-sekuentzia ongi dokumentatuta dagoela; bestela ere, bokalarteko herskari ahostunaren galera erabat arrunta da eta hitz barruko *-au-* > *-u-* soiltzeak ez du eragozpenik (*FHV*, 96-98), are gutxiago kontuan hartzen badugu hitz elkartu horretako *búru* osagaiak bere azentua bokal horren gainean zukeela. Horrenbestez, erabat justifikatua dago, eta paraleloz hornitua, **Mugaburutza* > **Mugaurutza* > *Mugurutza* moduko bilakaera bat, *-tza* atzizkidun eratorriarekin **Mugaburutza* bera edo **Mugaurutza* dokumentatuta ez badaude ere.

3. *Gorrotxategi* deituraren etimologia

Ziurtasun erabatekorik agertu gabe, *Gorrotxategi* deitura *gurutze* hitzarekin lotzeko aukeraz mintzo da Mitxelena (1973: 98); *Gurrutxategi* aldaera hartzen du oinarri gisa hurbilketa horretarako, eta *Gurrutxaga* (< *Gurutzeaga*) modukoak ere aipatzen ditu. Azken honen alde Erdi Aroko datuak ere bil daitezke: konpara bitez *Juan de Gurruceaga* (*ArchSegII* 1402), *Juanto de Guruceaga* (*ArchSegIII* 1470) eta *Juanguo de Gurruceaga* (*ArchAtaun* 1488). Hori hala izanik ere, atal honek beste azalpen bat hobesten du *Gorrotxategi* deiturarentzat: jarraian datozen datu eta azalpenek erakusten dute *Gorrotxategi* dagoela, itxura guztien arabera, *Gorrotxategi* deituraren jatorrian.

3.1. *Gorrotxategi* eta *Gorrotxategi* Erdi Aroan

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da lehentasun kronologiko argia duela *Gorrotxategi* aldaerak dokumentazioan, *Gorrotxategi* aldaeraren aldean. Erdi Aroan *Gorrotxategi* noiz eta non agertzen den 1. taulak jaso du (datuak nire corpusean oinarrituak dira):

1. taula

Gorrotxategi Erdi Aroan

<i>Sancho Lopes de Gorrichategui</i>	1384	<i>ArchLegazp</i>
<i>Martín Sanches de Gorrichategui</i>	1384	<i>ArchLegazp</i>
<i>Lope Sanches de Gorrichategui</i>	1400	<i>ArchLegazp</i>
<i>Martín Sanches de Gorrichategui</i>	1400	<i>ArchLegazp</i>
<i>Johan Sanches de Gorrichategui</i>	1400	<i>ArchLegazp</i>
<i>Sancho Lopes de Gorrichategui</i>	1400	<i>ArchLegazp</i>
<i>Iohan Sanches de Gorrichategui</i>	1412	<i>ArchLegazp</i>
<i>Juan Saez de Gorrichategui</i>	1479	<i>ArchOñati</i>
<i>Iohan Sánchez de Gorrichategui</i>	1493	<i>ArchLegazp</i>

Ageri denez, *Gorrotxategi* aldaeraren lehen adibideak xiv. mendekoak dira, eta bakanak dira xv. mendeko adibideak. *Gorrotxategi* aldaerari dagozkion datuak 2. taulak jasotzen ditu.

2. taula

Gorrotxategi Erdi Aroan

<i>Juan de Gorrochategui e Machín de Gorrochategui e Ferrando de Gorrochategui</i>	1402	<i>ArchSegII</i> (Zegamakoak dira pertsonok)
<i>Lope Sanches de Gorrochategui e Juan de Gorrochategui e Martín Sanches de Gorrochategui [e] Diego Sanches de Gorrochategui e Sancho de Gorrochategui e Sancho Lopes de Gorrochategui</i>	1407	<i>ArchSegII</i> (Legazpikoak dira)
<i>Fernando de Gorrochategui</i>	1409	<i>ArchSalvatII</i> (Segurakoa da, Zegaman bizi)
<i>Diego Sanches de Gorrochategui</i>	1426	<i>ArchSegII</i>
<i>Ferrando de Gorrochategui</i>	1430	<i>ArchSegII</i> (Zegamari lotua)
<i>Ferrando de Gorrochategui</i>	1454	<i>ArchAspar</i> (Zegamari lotua)
<i>Francisco de Gorrochategui</i>	1454	<i>ArchAspar</i> (Zegamari lotua)
<i>Martín de Gorrochategui</i>	1470	<i>ArchSegIII</i> (Zegamari lotua)
<i>Lope de Gorrochategui</i>	1470	<i>ArchSegIII</i> (Zeraini lotua)
<i>Martín Diaz de Gorrochategui</i>	1470	<i>ArchSegIII</i>
<i>Juan Sáez de Gorrochategui</i>	1470	<i>ArchSegIII</i>

Gorrotxategi aldaeraren lehen adibideak 1402koak dira, eta xv. mendeak aurrera egin ahala ugaritzen dira. Ohargarria da nola banaketa ia osagarrian dauden *Gorritxategi* eta *Gorrotxategi* deiturak: herri edo eskualde berean *Gorritxategi* desagertuz joan da *Gorrotxategi* aldaeraren mesedetan. Horrek bien arteko jatorri komunaren hipotesia indartu egiten du.

Bereziki interesgarria da, orobat, ikustea pertsona beraren izena bi aldaerarekin idatzia agertzen dela dokumentazioan: Seguran prokuradore den *Juan Saenz de Gorrochategui* (*ArchSegIII* 1479) beste bilduma batean *Juan Saez de Gorrichategui* (*ArchOñati* 1479) agertzen zaigu; cf. halaber *Iohan Sánchez de Gorrichategui* (*ArchLegazp* 1493), «escribano» gisa ageri dena. Hauek ere, bistan denez, aldieron jatorri beraren aldeko datuak dira.

Azkenik, Mitxelenak iradokitzen duen aukeraren aurkakotzat har daiteke *Gurruixategi* aldaeraren bakantasuna eta berantiartasuna: corpuseko adibide bakarra xvi. mendekoa da, *Pero Sanches Gurruchategui* (*ArchSegIII* 1513).

3.2. Gorri dago Gorritxategi/Gorrotxategi deituraren oinarrian

Asimilazio soil batez azaldu daiteke *Gorritxategi* > *Gorrotxategi* aldaketa. Aldaketa hau, gainera, segmentu segida bera duen beste izen batean ere ikus daiteke: konpara bitez Eiheralarreko *S. Baygorritegui* (*PobNav* 1366) eta Ciérvidek (1970: 346) Artaxoan 1969an jasotako *Baigorrotegi*. Hemen, ageri denez, *-gorritegi-* > *-gorrotegi-* aldaketa dugu, aztergai dugun deituran *gorritxa-* > *gorrotxa-* dugun bezalaxe.

Datu eta azalpen horien argitara, eta *Gorritxategi*-ren lehenatasun kronologiko zein etimologikoa ezarrita, izen honen osaera argitzea geratzen da. Sinpleena da pentsatzea *-tegi* gehitu zitzaiola *gorritx(a)*-ri, jatorriz izengoiti izango zen deiturari. Maiz dugu *-tegi* izen berezi bati lotua: itxura guztien arabera, *Apalategui*, *Baltzategi*, *Izu-*

rategi eta halakoak ‘Apala izenekoaren tegia’, ‘Baltza izenekoaren tegia’, ‘Izurra deituaren tegia’ ulertu behar dira; horietan, *Apala* (< *apal* + *-a*), *Baltza* (*baltz* + *-a*) eta *Izurra* (*izur* + *-a*) goitizena ditugu, adjektiboari artikulua gehituz sorturiko goitizena, gerora deitura bilakatuak. Izen berezi izate horretan, argia da *Sancholopestegui* (*ArchOñatI* 1470), zeina ‘Sancho Lopezen tegia’ izango zen jatorrian.

Halakoen argitara, bi aukera daude, gutxienez, *Gorritxa*- azaltzeko: pentsa daiteke *gorritx* dugula, *-a* artikuluekin. Honen eragozpena da *Gorritxa* deitura, goitizena gisa edo bestela, ez dagoela dokumentatua darabilgun corpusean; bai dago dokumentatua, ordea, *gorritx* soila, cf. *Eneco Gorrich* (*PeajNav* 1362) eta *Pero Miguel Gorrich* (*ArchPampII* 1364).⁶ Arazo hau, nolahi ere, dokumentala soilik izan daiteke, *Gorritxa* moduko deitura bat erabat hizkuntzaren arauen eta izenak sortzeko ohituren araberakoa bailitzateke.

Bestela, ongi dokumentatua dago *Gorritxo* deitura: *Pedro Peres Gorricho* (*ArchSalvatI* 1321), *Johan Miguell Gorricho* (*ArchToll* 1349), *Luys de Amescosa*, *Gorricho* (*ArchTafIII* 1494), etab. Honen bidetik, agian ez da ezinezko pentsatzea *Gorritxo* + *tegi* ‘Gorritxo izenekoaren tegia’ izan zela jatorrian *Gorritxategi*, eta eratorpenean gertatu dela *gorritxo* > *gorritxa*-, nahiz eta hau normalean bi silabako oinarriekin gertatzen den, cf. *basolbasa*-, *osolosa*-, etab. (*FHV*, 126). Ez dago argi, bestalde, zenbateraino den esanguratsua eztabaida honetarako Oñatiko *Gorrichotegui*, 1762koa baita adibidea (Ugarte & Zumalde 1976: 105; *Gorritxitxi* da gaur).

4. Irulegiko Eskua eta euskararen bidez egin diren interpretazioak

Harrabots handia piztu zuen *Irulegiko Eskua* deiturikoaren aurkikuntzak, 2022ko azaroaren 14an aurkeztu zenean. Bertako idatziak euskararen bidez interpretatu nahia- ren arrazoi nagusia testuaren lehen lerroan dagoen **sorioneku** (edo **sorioneke**) da, ez bairik gabe. Berehala egin ziren erkaketak, gizartean arin zabalduak, euskara modernoko *zorioneko* postposizio sintagmarekin, itxurazko antzekotasunean oinarrituta.

Badirudi mundu akademikoan ere *zori* eta *on* euskal hitzetan oinarrituriko interpretazioak onespina jaso zuela zenbaiten aldetik, aurkikuntza ondoko lehen hilabeteetan behintzat. Horren lekuko da Aranzadik Juantxo Agirre-Mauleonen ardura- pean argitaraturiko *Irulegi* izenburuko liburua, zeinetan Joaquín Gorrochategui eta Javier Velaza agertzen diren testuen egileen artean. Liburu horretan (Agirre-Mauleon 2022: 67),⁷ nahiko ziurtzat jotzen da euskarazko hitz horien bidezko interpretazioa, esaten baitzaigu «aurkitutako lekuagatik —baskoien lurraldearen bihotzean— ez baltz, [**sorioneku**] ausazko kointzidentzia formaltzat hartzea legoke»; bukaerako **-eku** horren interpretazioaz orduan ere zalantzak agertzen dituzte egileek. Horretaz gain, «Irulegiko eskua ziur aski baskoien hizkuntzan idatzitako lehenengo dokumentua d[el]a» esaten zaigu, eta jarraian «euskararen protohistoria finkatzeko» Irulegiko Eskuko testuak dukeen garrantzia nabarmentzen da (Agirre-Mauleon 2022: 78).

2022ko azaroan, Conde-Egiak ondutako erreportaje batean, Gorrochateguiaren ahotan jartzen da ondoko hau: «Gai gara **sorioneku** den lehen hitza ulertzeko, baina

⁶ Lehenago, leku-izen batean, cf. *Iragorrich* eta *Irogorrich* (*ColRonces* 1284).

⁷ 2022ko abuztu-irailtan idatzia bide da testua.

oraindik ezin ditugu beste gustiak [sic] dezifratu»;⁸ interpretazio arazoak gorabehera, erreportaje laguntzen duen bideoan, baskoien hizkuntzat jotzen du Gorrochateguik Irulegiko Eskukoa.⁹ Erreportaje berean, «[z]alantzarik gabe baskoieraz idatzitako lehen dokumentua da» dira Velazaren hitzak.¹⁰ Orobatsu, UNEDek 2023ko otsailan antolaturiko hitzaldi batean, Velazak izendatuki dio (2023: 1:14:00-tik aurrera) testuaren lehen lerroa ulertu egiten dela, ustezko atzizkia gorabehera, ondoko lerroek ilunak izaten segitzen badute ere. Hitzaldi horretan (48:05), «epigrafía ibérica»-ren, «epigrafía celtibérica»-ren eta «epigrafía lusitana»-ren agerrera eremuak irudikatzen dituen Iberiar penintsularen mapa batean, «epigrafía vascónica» gehitu du eremu gisa Velazak;¹¹ garrantzitsua da nabarmentzea hizkuntza jakinei lotuta aurkezten direla epigrafía-eremu horiek.

Hastapeneko iritzi sorta honetan, argi dago *baskoiera* terminoa euskararekin lotuta darabilte bi autoreok: hizkuntza honen bitartez «ulertzen» dute **sorioneku**.

Idea bertsuak dakartza Velazak UNEDekoa baino hamar egun lehenago Donostiako San Telmo museoan antolaturiko hitzaldi batean (Aiestaran, Velaza & Gorrochategui 2023: 47:15). Hitzaldi honetan berean, Gorrochateguik euskal interpretazioaren bidea hipotesi gisa aurkezten du: ezagunak diren beste material epigrafikoek ezartzen duten testuinguruak egiten du zilegi aukera hau (1:00:35). Alabaina, hipotesi soiltzat du, ororen buru, eta testuaren interpretazio arazoak zerrendatzen ditu. Badirudi 2022ko liburuko iritzia leundu egin duela, edo orduko formulazioa doituta hastapeneko baieztapenetatik aldendu dela, eta baldintzarekin aurkezten ditu interpretazio aukerak: esaterako, testuan aditz bat bilatu beharrean suertatzen denean (1:29:15), **eráukon** baizik ez du ikusten aukera gisa, betiere euskal hipotesiaren bidetik, baina «baldin eta **eráukon** aditza bada...» formulatuta. 2023ko apirilaren 18ko hitzaldi batean, berriz, **sori** segidan pertsona-izenen bat egon daitekeelako aukera aurkezten du Gorrochateguik (2023: 1:00:40). Bistan denez, Irulegiko Eskukoa «testu baskoitzat» —hots, euskarazkotzat, **sorioneku** «ulertzen» zuen neurrian— jotzen zuen hastapeneko iritzitik urrunarazten du aukera honek. Hitzaldi honen izenburuan berean «vascónico» izendapena ere saihesten du Gorrochateguik.

5. *Lekuine, eskuin, aitona eta zorion, osaeraz kideak*

Atal honetakoez helburu dute zenbait oinarri ezartzea Irulegiko Eskuko testuaren euskal interpretazioaren hipotesirako, haren ebaluazio fonetikoa muga zehatzen barrenean egin ahal izateko. Horretarako, aski gauza oinarritzkoa eskaintzen dute ondoko azpi-atalek, *on* adjektiboarekin lexikalizatuta bide dauden *Lekuine*, *eskuin* eta

⁸ Gaztelaniazko bertsioak honela dakar: «Somos capaces de entender la primera palabra que es **sorioneku** pero aún no podemos descifrar las siguientes».

⁹ Honela dio: «nos lleva [Irulegiko Eskuak] al mundo anterior a los romanos; es verdad que el texto procede precisamente del choque entre los romanos y la sociedad indígena de los vascones de ese momento, pero lleva a su lengua, a su escritura y a su mundo».

¹⁰ Gaztelaniazko bertsioak honela dakar: «Primer documento escrito indudablemente en lengua vascónica».

¹¹ Zuhurragoa da «Escrituras nororientales no identificadas» izendapena, Ferrer y Janérena (2020: 971), epigrafeak euskararekin edo haren ahaide datekeen hizkuntza baskonikoren batekin ezin lot daitezkeen artean.

aitona hitzen bilakaera fonetiko ahalik eta xeheena, *zorion*-ena ere nolakoa izan zitekeen ondorioztatzeko eta erabakitzeko Antzinateko **sorion** baten ahaidetzat jo daitekeen.

5.1. Lapurdiko *Lekuine* ‘leku on’

Toki-izenak ere izan daitezke lagungarri hizkuntzaren barrenean erregular antzeoak diren bilakaerak identifikatzeko, artikululu honen sarreran aipaturiko adibideak gorabehera. Horrexetarako erabil dezakegu *Lekuine*, zeinak *eskuin* hitz arruntaren bilakaera bertsua izan duen.

Gavelek (1921: 72) adierazi bezala, *leku* + *on* dago *Lekuine* izenaren oinarrian, eta epentesian du jatorria bukaerako *-e* bokalak, leku-kasuetan erabiltzen baitira leku-izenak maizenik, *Lekuon-e-ko*, *Lekuon-e-ra*, etab. Hitzaren osagaiak horiek direla herriaren izenaren erdal ordainak ziurtatzen du, *Bonloc* baita. Erdi Aroan, nire corpusean erdal izenaren lekukotasunak baizik ez ditut aurkitu: *Bono loco* (*LivOr* 1194), *Bonloc* (*ColRonces* 1270), *Bonoloco* (*DinChampIII* 1273), *Bonus locus* (*ColRonces* 1287), etab. *EOD*Ak dakartzan adibideen artean, 1835ekoa da *Lekhuine*-ren lehen adibidea.

Émile Ernaultek helarazitako azalpena jasotzen du Gavelek (1921: 72, 1. oin-oharra), zeinaren arabera *-uo-* > *-ui-* aldaketa bokalikoa gertatua den *Lekhuine* izenean: xehekiago, balizko aldaketa horretan *uo* > *uu* > *üü* > *ui* bilakaera bokalikoa dugula esaten digute, *au* > *aü* > *ai* bilakaeraren parekoa berau (*gauza* > *gaiza*, etab.). Mitxelenak (*FHV*, 66), berriz, *leku-on(e)* > **lekuen(e)* edo, Gavelen azalpena onartuz, *leku-on(e)* > **lekuune* proposatzen ditu, hots, *-uo-* > *-ue-* > *-ui-* edo *-uo-* > *-uu-* > *-ui-* gisako bilakaerak bide zituen gogoan.

Artikulu honek beste aukera bat lantzen du *-i-* hori azaltzeko. Haren azken buruko jatorria *-e-* epentetikoa izan daiteke, honelatsu: **Lekuone(ko)* > **Lekuõẽ(ko)* > **Lekuõĩ(ko)* > **Lekuĩ(ko)* > **Lekuin(ko)*, eta gaurko *Lekuine* azaltzeko badirudi berriz ere berranalizatu dela *-e-* epentetikoa izenaren parte moduan. Nabarmentzekoa da, bestalde, toki-izen honek laguntzen duela aldaketok marko kronologiko jakin batean kokatzen, edo, besterik ez bada, haientzat *post quem* erlatibo bat ezartzen: badirudi herria bera Erdi Aroan sorturikoa dela, eta haren izenak ere ezin du izan jatorri proto-erromantzeko *leku* hitza mailegatu baino lehenagokoa. Erdi Arotik honakoak behar dute hemen deskribaturiko aldaketa fonetikoek.

5.2. *Eskuin* ‘esku on’

Lekuine toki-izenari emaniko deribazio fonetiko edo abiapuntu bertsua hobesten du azpiatal honek *eskuin*-en aldaerentarako. Aspaldidanikoa da hitz honen osieran *esku* dagoelako ideia (Astarloa 1803: 79; van Eys 1873: s.v. *esku*; Schuchardt 1912: 274), baina iluntzat jo izan da bukaera: halaxe dio van Eyssek eta hala dakar Traskek ere (2008: s.v. *eskuin*). Dirudienez, Gavel (1921: 72, 1. oin-oharra) izan zen lehena *on* egon zitekeelako ideia biltzen.

Antzeko adjektiboak ditugu beste hizkuntza batzuetan ere: bretoierazko *dorn mot* ‘esku on’, ‘eskuin esku’ dakar gogora Gavelek berak, Émile Ernaultek jakinarazi ziona. Ménarden hiztegiak *dorn mat* du jaso (DEVRI s.v. *dorn* ‘esku’, *mat* ‘on’). Indoeuropar familia aztergai duela Buckek (s.v. *right*, § 12.41) dioen bezala, «[m]any of

[the words] for ‘right’ belong to an inherited group pointing to an IE word for ‘right with reference to the hand». Familia honetan, ‘on’, ‘zuzen’ eta ‘indartsuago’ adierazten duten hitzak ere egon daitezke ‘eskuin’ esanahia duten hitzen oinarrian: letonieraz, esaterako, *labs* ‘eskuin’ dugu, zeina jatorrian ‘on’ den (adiera honek gaur egun ere irauten du), eta goi alemaniera ertaineko *diu bezzer hant* ‘esku hobea (= eskuina)’ moduko sintagmak ere aipatzen ditu Buckek. Esanguratsua da ikustea, orobat, nola dauden leku-kasuetan jokatuak Ernout-Meilleten hiztegiak dakartzan unbrierazko adibideak, *destru-co* ‘eskuineko’ eta *destram-e* ‘eskuinean’.

Hauek dira euskal hitzaren aldaera nagusiak, artikulu honetan azalpen etimologiko zehatza izango dutenak: *eskuin*, *esku*, *eskubi*, *eskun* eta *eskue* (§ 5.2.2), *eskume* eta *eskuma* (§ 5.2.3) eta *eskoi*, *eskoï*, *eskoin* eta *eskoa* (§ 5.2.4). Atal honen helburuetarako ez baita ezinbesteko —azalpen formal soila du xede, ez tarteko aitzinforma dialektalen xehakapena—, ez ditut banan-banan aipatuko aldaera hauen xehetasun historiko eta dialektal guztiak, egoki ikusten dudanean baizik. Informazio horietarako, *OEHRa* edo *EHHARa* jo dezake irakurleak.

5.2.1. Deribazio fonetiko klasikoa: *Gavel* eta *Mitxelena*

Dokumentaturiko formak azaltzeko, **esku-on-e* batetik abiatzen da *Mitxelena* (*FHV*, 149). Bukerako *-e* hori, ageri denez, *atze* eta *aurre* moduko hitzetan dagoen bera da, *-e-* epentetiko berranalizatua: *eskuon-e-tik* → **eskuone-tik* berranalisia gertatu zen, oso ohikoak baitziratekeen leku-kasuetan jokaturiko **eskuonetik* ‘esku onetik, eskuinetik’ edo **eskuonera* ‘esku onera, eskuinera’ moduko postposizio sintagmak, nozio espazialak adieraziko zituztenak (gogoan har unbrierazko adibideak).

Gainera, tarteko bi forma behar ditu, **eskone* eta **eskune*, *-uo-* bokal segidaren soiltze ezberdin banarekin: **eskone* horren ondorengotzat ditu *eskoa* eta *eskoi* (< **eskoe*), tarteko **eskune* aitzinformarenak, berriz, *eskuma*, *esku*, *eskuin*, *eskoin*, *eskoï*¹² eta zubererazko *eskuïn*, eta baita Iزابako *eskúa* eta Uztarrozeko *eskúa* mugatuak ere.

Hori esanik ere, partez behintzat onartu egiten du *Mitxelenak* *Gavelen* ustea, esaten duenean bigarren taldeko horietako zenbait **eskuine* formatik etor daitezkeela; badirudi, beraz, *-uo-* > *-uu-* > *-uü-* > *-ui-* aldaketa bokalikoa egokitzen duela. Ondoko azpiatalek banan-banan azaltzen dute aldaera guztien deribazio fonetikoa. Nire ustez, deribazio horiek erakusten dute ez dela beharrezko Gavelek eta *Mitxelenak* onetsitako *-uo-* > *-ui-* aldaketa, *eskuin*-en aldaerotan *-e-* epentetikoa baita *-i-* horren azken buruko jatorri segmentala.

5.2.2. *Eskuin*, *esku*, *eskubi*, *eskun* eta *eskue*

Forma hauek azaltzeko, eta **eskuone* forma abiaburu moduan hartuta, sudurkariaren galera proposatu behar dugu lehenik, **eskuone* > **eskuoë*, sudurkaritasuna ondoko bokaletan arrasto moduan geratzen dela onartuz (*FHV*, 87-88). Ondoren,

¹² Ez da oso ongi ulertzen zergatik biltzen dituen *Mitxelenak* *eskoï* eta *eskoin* hauen artean; haien bokalismoa hobeki sailkatzen da *eskoi*-rekin batera. Badirudi formari bainoago aldaron banaketa dialektalari begiratu ziola, erdi-ekialdekoak baitira, eta autore zenbaitek, Etxeparek esaterako, bitakoak darabiltzanez, *eskuin* eta *eskoin*, beharbada batera eman nahi izan zituelako.

**eskuōē* > **eskuōī* dugu, bokalen disimilazio ezagunarekin (cf. *erraldoe* > *erraldoi*, *saroe* > *saroi*; ikusi *FHV*, 121, 147), eta, azkenik, *-uo-* bokal segidaren soiltzearekin eta sudurkaritasunaren galerarekin **eskuōī* > *eskui*. Sudurkaritasuna berriz segmentalizatuturik, **eskuōī* > **eskuī* > *eskuin* dugu (cf. *zai* - *zain*, *lukainka* - *lukaika*, etab.; *FHV*, 304). *Eskubi* aldaera ere hauen artean kokatu behar dugu, *eskui* > *eskubi* proposatuz: *-u-* bokal ezpainetakoak eragin du kontsonante ezpainkaria sortzea.

Antzeko deribazioa izan genezake Mitxelena-ren **eskune* formatik abiatuta: **eskune* > **eskuē* > **eskuī* > *eskui* (eta *eskubi*) / *eskuin*. Aurreko paragrafoko aukeraren eta honen artean dagoen alde bakarra da noiz proposatzen dugun gertatu dela *-uo-* > *-u-* soiltzea. Nire ustez, soiltze horren kronologia zenbat eta geroago kokatu, orduan eta errazago azaltzen da zenbait eremu dialektaletan bitako emaitzak izatea, *-o-* zein *-u-* duten aldaerak agertzea (cf. Etxepare-ren *eskuin*/*eskoin*, edota mendebaldean *eskoi* zein *eskuma* aldaerak aurkitzea), eta baita elkar ukitzen ez duten eremu dialektaletan ere emaitza bokaliko bera izatea, mendebaldeko *eskoi*-k, erdi-ekialdeko *eskoin*-ek eta erronkarietarako *eskoī*-k erakutsi lezaketen bezala (*EHHA*, § 2179; *OEH* s.v. *eskuin*). Onartzen badugu **eskune* eta **eskone* aitzinformak hasieran banatu zirela oinarritzko **eskuone* hartatik, zailagoa da gorabehera dialektal horiek azaltzea. Forma eta aitzinforma hauen dialektologia historikoa —hots, *stemma* dialekto-etimologikoa— egiteko geratzen da.

Bestalde, badirudi despalatalizazioz azal litekeela batik bat iparraldeko autoreengan aurkitzen den *eskun* aldaera: *eskuñ* > *eskun*. Beste aldaera guztien argitara, zailagoa da irudikatzea *-e-* epentetikorik gabeko *eskuon* baten ondorengoa dela, hots, *eskuon* > **eskuun* > *eskun* gertatu dela.

Irazustak (1688-1772) bakarrik darabil *eskue* aldaera. Honetan ere, **eskuone*-tik abiatuta, **eskuōē* > **eskuīēl*/**eskuue* > *eskue* soil batekin aski genuke, edo, Mitxelena-ren **eskune* aitzinformatik, **eskune* > **eskuē* > *eskue*, bokalarteko sudurkariaren galerarekin, besterik gabe. Bokalismoari dagokionez, berdinak dira Oñatiko Eskuizkribuko *sermue*, *panparrue*, *patrue* (*FHV*, 147), guztiak ere *-one* bukaera dutenak jatorrian.

5.2.3. Eskume eta eskuma

Mendebaldeko aldaerotan sudurkari biezpainkaria nola sortu den azaltzeko, *kuna* > *kuma* ‘sehaska’ edo *Luno* > *Lumo* modukoak ekarri behar dira gogora, eremu dialektal horretan berean aurki daitezkeenak. Hauetan, Mitxelena dioenez (*FHV*, 304, eta 9. oin-oharra), berriro segmentalizatu zen sudurkaritasuna, bokalarteko /n/ galdu ondotik bokaletan tasun suprasegmental gisa iraun zuena, baina /u/ bokala ezpainetakoak denez sudurkari biezpainkari gisa berrezarria, honelatsu: *kuna* > **kūā* > *kuma*. Beste aukera bat da ahoskagunearen asimilazioz azaltzea, onartuz /u/ bokal ezpainetakoak eragin duela /n/ ere ezpainkaritzea, cf. *kuna* > *kuma*.

Antzekoa gertatu bide da, beraz, *eskuma*-ren kasuan ere: **eskuone* > **eskuōē* > **eskuīē* > *eskume*; errata ez bada, Artzadunen (1675-1741) dotrinan aurki daiteke *eskume* aldaera hau, *eskuma* ugariagoaren adibideen artean. Bukaeran *-a* orokortu duen *eskuma* hau, berriz, *andre* → *andra*, *lore* → *lora*, *agure* → *agura* eta halakoekin sailkatu behar da; analogiaren indarraren bidez azaldu ohi dira hauek, forma mugatuetan *-a* + *-a* = *-ea* (mugag. *aldapa* / mug. *aldapea*) duten hitzen paradigmara eramanez.

baitira jatorrian *-e + -a = -ea* (mugag. *lore* / mug. *lorea*) dutenen forma mugagabeak ere (FHV, 128; Hualde 2006: 455). Gorago egin bezala, Mitxelenaren **eskune*-tik ere abia gintezke, **eskune > *eskũē > eskume → eskuma*, edo, ezpainkaritasunaren asimilazio hutsez **eskune > eskume → eskuma*.

5.2.4. Eskoi, eskoī, eskoin eta eskoa

Erabat kideak dira aldaera hauetako bilakaera eta gorago *eskuin/eskui* taldearentzat proposatutakoa, eta *-uo-* segidaren soiltzean datza alde bakarra: **eskuone > *eskuōē > *eskuōī > eskoī* moduko zerbaitetan pentsa daiteke erronkarierazko aldaera sudurkariduna azaltzeko; Etxepare eta besteren *eskoin* aldaeran sudurkaritasuna berriro segmentalizatu da eta *eskoi* aldaeran galdu, besterik gabe. Berriz ere, Mitxelenaren **eskone* tarteko aitzinformatik ere antzeko bilakaerak izan genitzake: **eskone > *eskōē > eskoī > eskoin/eskoi*.

Arestian aipaturiko bilakabide morfologikoaren beste adibide bat da mendebaldeko *eskoa* aldaera zaharra: *-a* berezkoa duten hitzen paradigmara eraman da tarteko **eskoe* forma, *eskoe → eskoa* (ikus goian *eskume → eskuma*). Aldaketa analogiko honetan forma mugatuek berebiziko garrantzia izan dute, eta esanguratsua da, alde honetatik, Mikoletaren *eskoea* 'eskuina'.

Azken ohar moduan, aipa liteke agian ez dela erabat baztertzekoa 4.2.2 atalean aztertutako *eskui(n)* aldaeren adibide batzuk hemengo *eskoi(n)* formatatik abiatuta azaltzeko aukera, *eskoi(n) > eskui(n)* bokalen asimilazio soilarekin (cf. *-doi > -dui*); dena den, ohartzekoa da jatorrian bokal segida berdina hiatoan zuten beste hitz batzuetan ez dela *-oe > -ui* gertatu, cf. *erraldoi* eta *saroi*.

5.4. Aitua, aitue, aitube 'aita ona'

Aurreko ataletan aztertutako *Lekuine* eta *eskuin* hitzetan bezala, *on* adjektiboa bide dugu lexikalizatua *aitona* izenean ere (EHHE s.v.). Antzekoak ditugu beste hizkuntza batzuetan, cf. errumanierazko *bunic*, *bunica* 'aitona, amona', *bun* 'on' adjektiboaren eratorriak (Buck s.v. *grandfather*, *grandmother*, §§ 2.46-2.47) eta frantseseko *bonne-maman* 'amona', *bon-papa* 'aitona'.¹³ Beraz, osatera etimologikoz *aita + on + -a* baldin bada, artikulua barne hartuta lexikalizatu da, ziur asko erreferente bakarreko entitateek izen berezi gisa jokatzeko duten joeragatik; berez dira definitu izen bereziak eta erreferente bakarreko izenak.

Hitz hau mendebaldean eta erdialdean aurki daiteke, beste forma batzuekin batera (cf. *aitaita*, *aitajaun*, haien aldaerekin); ekialdean *aitatxi*, *aitañi* ditugu, besteren artean (EHHA s.v. *aitona*, § 2505). Interesgarria da mendebaldeko zenbait hizkeratako *aitoa* aldaera, bokalarteko sudurkariaren galerarekin, erabat lexikalizatutako *aitona* batetik baizik ezin azal daitekeena. Forma horretatik, *aitua > aitue > aitube* bilakaerarekin azal daitezke aldaerak (FHV, 149); azken urratserako, cf. *eskubi*, baina ez da ahaztekoa jadanik Mikoletak *aita obe* dakarrela, zeinak beste azalpen etimologiko bat izan lezakeen, berrinterpretaturiko forma ez bada.

¹³ Céline Mounoleri eskertzen diot frantseseko hauek gogorarazi izana.

Lexikalizaturiko izen honetan, ez dugu *eskuin*-en eta *Lekuine*-n genuen *-e*- epentetikorik, eta honen arrazoia sinplea da: hitz horiek leku-kasuetan erabiltzen dira batik bat, eta *aitona*, berriz, pertsona bat izendatzen baitu, artikulua definituarekin lexikalizaturiko zen, maiztasun handiagoarekin erabiliko zelako absolutiboan edo ergatiboan, eta, batez ere, bokatiboan. Alabaina, haietan deskribatua dugun bokalarterko sudurkariaren galera badugu. Kronologiari dagokionez, hitz honen aldaerei dagozkion gertakari fonetikoek ere Erdi Arotik honakoak behar dute, euskaraz artikulua sortu ondutikoak.

6. Eskuinak ez dakar zorionik, Eskuak ere ez

Hizkuntzalaritza historikoaren printzipio oinarrizkoetako bat da itxurazko antzekotasun hutsak ez duela erabakitzen bi unitate linguistikok jatorri bera izatea. Hizkuntzen konparazioan erabili ohi da printzipio hori, haien lotura genetikoa zedarrizteko lanetan, eta berau irudikatzen adibide sorta polita bildu zuen Trasken (2015: 206) hawaiera modernoko eta antzinako grezierako hitzekin: konpara bitez, besteren artean, hawaierazko *aeto* ‘arrano’, *meli* ‘ezti’, *kia* ‘zutabe’ eta antzinako grezierako *aetos* ‘arrano’, *meli* ‘ezti’, *kion* ‘zutabe’, formaz zein esanahiz antzekoak.

Alabaina, antzekotasun horiek ez dira bi hizkuntzen lotura genetiko baten frogagarri —datu horiekin ezein hizkuntzalarik ez du ondorioztatzen gaurko hawaiera eta greziera zaharra ahaide direnik— ez eta mailegaketa gertakariaren erakusgarri ere: halaber hutsaren ondorio izan dira berdintasun azaleko horiek. Metodo konparatiboan, ezaguna denez, sakonagoko patroiz fonetikoak dira beharrezkoak, besteak beste, bi formaren arteko lotura genetikoa frogatzeko, korrespondentzia fonetikoak, alegia; beharrezkoa da forma horiek historia fonetiko koherente batez hornitzea (Campbell & Poser 2008: 172-176).

Euskal ikasketetan ere klasikoa da euskarazko *elkar* eta nederlandarazko *elkaar* esanahikideen adibidea (Uhlenbeck 1927), bi hitzen konparaziotik ez baita ondorioztatzen hitz zein hizkuntza horien arteko harreman genetikorik. Análisi diakronikoan sakontzen badugu, nederlandarazko forma hori *elkander* osoagoaren laburtzea da, zeinak *elk* ‘bakoitz’ (ing. *each*-en kognatua) eta *ander* ‘beste’ (ing. *other*-ena) dituen bi osagaiak (ingelesezko *each other*-en kide genetiko betea da, hortaz). Panorama horrek guztiak, bistan dena, gutxi du ikustekorik euskarazko *elkar*, *elgar*, *algar*... formen konstelazioarekin.

Lehen ikusian, lilura sor lezakete antzekoak edo berdinak diren segmentu-segidek, eusk. *elkar* - neder. *elkaar* bezalakoek. Análisi historiko sakonagoak erabakitzen du, ordea, jatorri komunezko harremanik dagoen ilusio horren atzean. Berdintsu aplikatu behar da printzipio hori hizkuntza bakarraren barranean ari garenean formak konparatzen, dokumentaturiko bi forma historikotan hitz beraren bi egoera diakroniko daudela irudiatu nahi dugunean.

6.1. Latinezko *saeta* eta gaztelaniazko *saeta* bi hitz dira

Adibide asmatu batekin irudika dezakegu hau. Jolas honek proposatzen duen errealitate ukronikoan, jo dezagun euskararen egoera dokumental antzekoan dagoela gaztelania, eta ia ez dagoela haren aztarna idatzi zaharrik, duela 2.000 urtekorik, hots, historia ezagunean hizkuntza *continuum* horrek *lingua latina* izena zuen garaiko

idatziak urriak direla. Jo dezagun, halaber, Iberiar penintsularen erdialdeko indusketa arkeologiko batean (gaurko Madril inguruko batean, adibidez), harri gainean aurkitu dela idatzirik testu bat, eta arkeologoek dioskutela duela 2.000 urte ingurukoa dela. Euskarri horretan, gainera, arkulari eta ezpatari, gudu bat dago irudikatua, eta testuan SAETA letra-segida irakur daiteke; testuaren hizkuntza zein den ez dago erabat ebatzia, baina badirudi gaztelaniaren aurrekariren batean egon daitekeela idatzia. Berehala zabaldu dira gizartean antzekotasun hutsean oinarrituriko interpretazioak: «Hara! Gaztelaniatzko *saeta* ‘gezi’ dugu dokumentatuta duela 2.000 urte!». Eta, etzi baino lehen gaur, gurlari gezilarien gorazarrez sortuak dituzkete kondaira eta kantu epikoak errealitate alternatibo horretako bardo eta kultur eragileek.

Ukroniazko ariketa honek asmatuiko errealitate horretan, bada, halaber, hizkuntza honen bilakaera diakronikoaz arduratzen den ikastunik, eta ziurtasun zerbait erdietsia dute hizkuntza honetako herskariaren eboluzioaz: balizko errealitate honetako jakintsuok diotenez, gaurko gaztelaniatzko bokalarteko herskari ahoskabeak herskari geminatuak edo herskari taldeak ziren hizkuntza horren aurreko egoeretan, eta gazt. *roto*, *gato* < aitzin-gazt. **rupto*, **catto* modukoak dituzte berreraikiak, zeintzuetan /t/ bokalartekoa /pt/ edo /tt/ taldeetatik etor daitekeen. Ondorioztatua dute, orobat, antzinagoko herskari ahoskabe soil batetik etor daitezkeela bokalarteko herskari ahostun modernoak, eta gazt. *lado*, *vida* < aitzin-gazt. **lato*, **vita* moduko bilakaerak dituzte berreraikiak, aitzin-gaztelaniatik gaztelaniarako bidean bokalarteko herskari ahoskabeak erregularri ahostundu direla. Ezaguna dugun errealitatean bezalaxe, beraz. Ezagutza horretan oinarrituta, aurkikuntza arkeologikoko SAETA horren interpretazio zuhurrago baterako deia egin beharrean daude hizkuntzalari horiek: «Kontuz! Aitzin-gaztelaniatzko **saeta* forma batek ***saeda* edo emango zukeen gaztelania modernoan; beraz, ez dirudi SAETA antzinako hori gaurko *saeta* ‘gezi’-ren aurrekari zuzena izan daitekeunik, antzekotasunak antzekotasun!». Are gehiago, ziurtasun handi xamarrez esan lezakete gaurko *saeta* ‘gezi’-ko /t/ hori jatorrizko /tt/ batetik edo etor daitekeela.¹⁴

Errealitate paralelo horretan are ertz gehiago ere imajina litezke, gauza jakina baita ezaguna dugun latinean bazela *saeta* ‘zurda, animalia-aren ile latz, zeta’ hitza, gaztelaniatzko *седа* ‘zeta’-ren aurrekari zuzena, izan ere. Badirudi SAETA alegiazkoarekin konparatzeko hautagai hobea izan zitekeela hori. Xehetasun horietatik guztietatik, irakaspén garbi bat atera behar da: 2023ko latina (hots, gaztelania, eremu geografiko horretan) ezin da zuzenean konparatu duela 2.000 urteko latinarekin, 2023ko *saeta* ezin da zuzenean konparatu 2.000 urte lehenagoko *saeta*-rekin, biak hizkuntza *continuum* berekoak izanagatik. Izan ere, ezaguna dugun historiara begira jartzeko aukera dugun honetan, nabarmen ageri baita oso gauza ezberdinak direla latinezko *saeta* ‘zeta’ eta gaztelaniatzko *saeta* ‘gezi’, esanahiz eta jatorriz. Itxuraz bakararra, bi izatez. Gaztelaniatzko *седа* ‘zeta’ eta latinezko *saeta* ‘zeta’, berriz, bi dira itxuraz, bakararra izatez.¹⁵

¹⁴ Ezaguna denez, latinezko *sagitta* ‘gezi’ da gaztelania modernoko *saeta*-ren aitzindaria (DCECH 5, 124b, s.v. *saeta*).

¹⁵ Erraz aurki daitezke antzeko adibideak. Gaztelaniatzko eta frantsesez, hots, latinen bi dialektotan —eta, beraz, hizkuntza beraren barranean—, etorki ezberdineko bi hitz ordezkatzen ditu *placer* segida grafikoak: gaztelaniatzkoaren frantses kognatua *plaisir* da, eta frantsesezko *placer*-en nolabaiteko kide etimologiko formalak *emplazar* edo litzateke gaztelaniatzko. Orobat frantsesezko *sol* ‘lur’ (< lat. *solum*) eta gaztelaniatzko *sol* ‘eguzki’ (< lat. *sōl*), eta abar.

6.2. *Sorioneku* eta haren euskal interpretazioa: ebaluazio linguistikoa

Gaurko euskal errealiterata itzuliz, Irulegiko Eskuko testuko *sorion* edo *sorioneku* eta euskarazko *zori on* edo *zorioneko* zuzenean konparatzea, itxurazko antzekotasun gordinean oinarrituta, anekdota deigarri bat baizik ezin da izan, ikerketan sakontzeko pizgarria, beharbada, baina hortik aurrerakoan historia fonetiko batean behar da kokatu konparazio hori. Ekinbide horixe jorratu dute aurreko atalek, aztertuz *on* adjektiboa bere baitan erabat lexikalizatuta dituzten hiru hitz, *Lekuine*, *eskuin* eta *aitona*. Horren helburua izan da konparagarri fonetiko eta morfologiko zehatzak bilatzea, ez bakarrik segmentu segidei dagokienez, baizik hizkuntzan sakonagokoak diratekeen alderdiei begira: hitz horiek erabili dira agerrarazteko zein den *zorion*-en kide fonetiko eta morfologiko izan daitezkeen adjektibo-sintagma lexikalizatupei dagokien bilakaera fonetiko diakronikoa. Konparazio horretarako, ez dirudi arazo denik *esku* eta *leku* hitzen erroko bokala *-u* izatea, *aita*-rena *-a*, eta *zori*-rena, berriz, *-i* izatea.

Kide horien xehakapen diakronikotik eskuratu dugun informazioa estu hartzen badugu, duela 2.100 urteko euskarazko *zorioneko* batek ***zoroioko* historiko baterako bidea egina beharko zukeen, eta ez da hala. *Zorion* huts batean pentsatuko bagenu ere, geure buruari aitorturik ez dakigula zeri dagokion idazkuneko *-eku/-eke*, orobatsu genuke: *zorion* hori lexikalizatuta zegoela eta leku-kasuetan zein bestelakoetan (cf. *aitona*) flexionatuko zela uste dugun unetik beretik, espero izatekoak izan zitezkeen ***zorioi* moduko aldaerak ere. Gorago esan bezala, Erdi Arotik honakoak dirateke *Lekuine*-ren, *eskuin*-en eta *aitoa* moduko deribazio fonetikoari dagozkion bilakaerak, eta ez dirudi aldaketa horietatik aparte utz daitezkeenik 1.000 urte lehenago kokazioan —inork lexikalizatuta egoteari gehiegizko iritziko balio— zeudekeen bi hitz.

Egia da bestelako eszenatokiak ere har litezkeela kontuan eta, aitzin-euskaraz *zorion* edo *zorioneko* bazelako hipotesiari eutsi nahi badiogu, ez da erabat baztertzeko aukera *zori on* sintagma osoa etengabe birsortu izana, bilakaera fonetikoak zituzkeen forma lexikalizatuagoaren gainetik. Alabaina, bilakaera irregular horiek ere gerta litezkeela ahaztu gabe, hizkuntzalaritzaren ahalaren esku dauden joko-arauak ahalik eta hobekien mugatzea da lehenik egin beharreko lana, horien arabera ulertzen saiatzeko iristen zaizkigun datu berriak.

Horrenbestez, *Lekuine*-ren, *eskuin*-en eta *aitoa* moduko aldaeren bidez eraikitako fonetika historikoa gidari hartuta, esan daiteke *eskuin*-ek ez duela tarterrik uzten antzinako *zorion*-erako, eta, ziur asko, Eskuak ere ez dakarrela *zorion*-ik. Ez, behintzat, erkatzea zuzenean euskara historikoarekin egin nahi baldin bada. Besterik litzateke proposatzea Irulegiko Eskuko testua ez dagoela euskararen aitzindari zuzeneko batean idatzia, haren ahaide-edo litzatekeen hizkuntza baskoniko batean baizik.¹⁶ Lan-hipotesia hori bada, ordea, bururaino eramane behar da, eta *zori* eta *on* item lexikoe-kiko konparaketa ere hein berean behar da haztatu.

Auzi hau guztia errespetatu beharreko bi puntutan laburbiltzen da: batetik, konparagai gisa item lexiko edo adjektibo sintagma jakin batzuk hartzen badira, haiei dagozkien bilakaera fonetikoak ere hartu behar dira erkaketarako. Bestetik, duela 2.100 urteko testu bateko segida grafikoak euskarazko item lexikoekin konparatzen

¹⁶ Euskararekin zuzenean lotu gabe, halako aukerak aipatzen ditu Velazak (2023: 1^o 16' 57''), «vascónico», «lengua vascónica», «lengua de los vascos» deiturak aterki hartuta.

badira, ez da zilegi esatea, aldi berean, testu hori euskarazkoa ez baizik beste zerbait dela («vascónico» edo bestelako izendapenak erabilia).¹⁷

Honi guztiari gaineratu behar zaio Irulegiko Eskuko testuaren beste zatiek ez dutela konparagarri garbirik euskarazko beste item lexiko batzuekin. Hots, ez dugu argudio gehigarririk pentsatzeko testua euskaraz edo hizkuntza baskonikoren batean dagoela, gure euskal begi modernoetarako deigarri den **sorioneku/sorioneke** horretatik harago. Azkenik, argudio linguistiko hauei filologiko-historikoa ere gehitu behar zaie: aski da *OEHN* begiratzea ikusteko *zori on* adjektibo sintagma ez dagoela testu zaharretan gaur ezagutzen dugun *zorion* bezain lexikalizatua, are gutxiago gaurko esanahi eta erabilerarekin, eta *ordu onean* edo *muga onean* moduko sintagma ez-lexikalizatuen kide betea dela *zori onean* ere testuen garai zaharretan. Ikusi *OEH* (s.v. *zorion*, *ordu onean* and *mugon*).

7. Irulegiko Eskutik Marteko Aurpegira: pareidolia linguistiko bat¹⁸

Irulegiko Eskuko testua euskarazkoa dela? Baskonikoa dela? Ez jakin. Ez behintzat **sorioneku/sorioneke** horretatik edo, hobeto esanda, zeinu-segida horretatik abiatuta hipotesi horren alde orain arte bildu izan diren argudioengatik. Argudio hobeen edo datu berrien faltan, psikologian deskribaturiko *pareidoliaren* fenomeno gogoratu besterik ezin dugu egin, hizkuntzaren alorrera ekartzeko: objektu berri edo ezezagunak eredu ezagunen arabera interpretatzeko edo osatzeko gure garunak duen joera izendatzeko erabiltzen da *pareidolia* terminoa. Irulegiko Eskutik hara, gogoangarria da Marteko Aurpegia delakoaren adibidea, hona dakarguna:




1. irudia

Marteko Aurpegia, *Viking 1* espazio-ontziak 1976an ateratako argazkian (jabetza publikoa)

¹⁷ Céline Mounoleri eskertu behar diot bigarren ohar hau eginik.

¹⁸ Aurretik hitzaldi batean aurkeztutakoak dira adibide eta gogoeta hauek (Manterola 2023). Lehenago, *Etimologiak Sarean* Twitter kontuan (@etimotxioak), 2022ko azaroaren 16ko eta 17ko sarreretan.

Zaila da, izan ere, arrokazko egitura horretan aurpegi bat ez ikustea: horretarako gaude «programatuta». Dagokigun auzira itzuliz, *pareidolia linguistikotzat*¹⁹ jo genezake Irulegiko **sorion(eku)** euskarazko *zorion(eko)*-ekin berdintzea. Gure euskal begi-gogoek ikusten ohituak daudena ikusi dute, besterik ez, beharbada euskal hitzekin zerikusirik batere ez duen zeinu segida batean. Arrisku honen lekuko, ikusi besterik ez dago nolako itxura duen Marteko Aurpegiak, argazki gehiago atera ahal izan dizkiotenean:



2. irudia

Marteko Aurpegia, *Mars Global Surveyor* espazio-ontziak 2001ean ateratako argazkian (jabetza publikoa)

Gogoragari ona da bigarren irudi hau, ohartarazten baikaitu jauzi interpretati-boak zuhurtziaz egin behararen garrantziaz. Itxaropenerako zirrikitu bat ere uzten du irekita, ordea: astronomoek argazki berri hobeak egin ahal izan dituzten bezala, ezin esperantzarik galdu aurkikuntza arkeologiko edo dokumental gehiago ere izango ditugula etorkizun hurbilean.

8. Azken hitza

Mugurutza, *Gorrotxategi* eta *Lekuine*, hirurak dira, jatorriz, toki-izenak, eta hirurek eskaini dizkigute irakasgai politak toki-izenen gaineko etimologiagintzaren berezitasunaz. Toki-izenetatik harago eraman gaitu Erdi Aroko *Lekuine*-k, *eskuin*-en kide baita osaeraz zein bilakaera fonetikoz; *aitona* ere osaeraz berdintsua da, baina haiek ez bezala ez zen leku-kasuetan flexionatuko. Hirurak dira, nolnahi ere, adjektibo sin-tagma lexikalizatuak, bigarren osagai moduan *on* dutela. *Zori on* ere osaera berekoa baita, baina bi horien bilakaera fonetikorik gabea, artikulua honen ondorioa izan da

¹⁹ Fenomenoa hizkuntzazkoa denean *pareidolia* deitza izan zitekeen aukera bat, baina termino honi beste esanahi bat diote esleitua psikologian.

zori eta *on* item lexikoen kolokazioa ez zegokeela lexikalizatuta Erdi Aroan, are gutxiago Antzinatean, eta, beraz, *zorion* bera ezin dela konparatu, zuzenean behintzat, Irulegiko Eskuko **sorioneku**-rekin.

Erreferentziak

- Agirre-Mauleon, Juantxo (arg.). 2022. *Irulegi. Irulegiko eskua, K.a. 1. mendeko lekukotasun epigrafiko bat Aranguren ibarrean*. Donostia: Aranzadi.
- Aiestaran, Mattin, Javier Velaza & Joaquín Gorrochategui. 2023. La mano de Irulegi [hitzaldia, 2023-02-10]. *Aranzadiren XXI. Arkeologia Jardunaldiak. Irulegi, indusketa arkeologiko baten kronika*. Donostia: Aranzadi, San Telmo. <https://www.youtube.com/watch?v=x0QvMh8JNHU> (2023-07-31).
- Astarloa, Pablo Pedro. 1803. *Apología de la lengua bascongada, ó Ensayo crítico filosófico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen*. Madrid: Gerónimo Ortega.
- Aurrekoetxea, Gotzon & Xarles Videgain (zuz.). 2018, 2019. *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*, 9. eta 10. libk. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Azkue, Resurrección María de. 1923-1925. *Morfología Vasca. Euskera* 4-5-6 (Berrargit. Donostia: Sendoa & Euskaltzaindia, 1982).
- Basauri, Jon. 2022. *Soraluzeko leku-izen hautatuak*. Gasteiz: UPV/EHUko gradu amaierako lana.
- Belasko, Mikel. 1999. *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades de Navarra: apellidos navarros*. Iruñea: Pamiela.
- Belasko, Mikel. 2000. *Diccionario etimológico de los nombres de los montes y ríos de Navarra*. Iruñea: Pamiela.
- Buck, Carl Darling. 1949. *A dictionary of selected synonyms in the principal indo-european languages: a contribution to the history of ideas*. Chicago: University of Chicago Press.
- Campbell, Lyle & William Poser. 2008. *Language Classification: History and Method*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Ciérvide, Ricardo. 1970. El Romance Navarro Antiguo. *FLV* 6. 269-370.
- Conde-Egia, Eider. 2022. Artikulu tematikoa: *Idazketa eskuan* [dibulgazio artikulua, 2022-11-14]. Aranzadi Zientzia Elkarte. www.aranzadi.eus/eu/idazketa-eskuan (2023-08-06).
- Corominas, Joan & José Antonio Pascual. 1980-1991. *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*. Madrid: Gredos.
- DCECH* = Corominas & Pascual (1980-1991).
- DEVRI* = Ménard (2023).
- Durkin, Philip. 2009. *The Oxford guide to etymology*. Oxford: Oxford University Press.
- EHHA* = Aurrekoetxea & Videgain (2018, 2019).
- EHHE* = Lakarra, Manterola & Seguro (2019).
- Eleizalde, Luis de. 1933. Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas. *RIEV* 24(2). 283-303.
- EODA* = Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. *Euskal Onomastikaren Datutegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/onomastika> (2023-08-06).
- Eys, Willem Jan van. 1873. *Dictionnaire basque-français*. Paris, Londres: Maisonneuve, Williams & Nordgate.

- Ferrer i Jané, Joan. 2020. Las escrituras epicóricas de la península ibérica. *Paleohispánica* 20. 969-1016.
- FEW = Wartburg *et al.* (1922-2002).
- FHV = Mitxelena (1977).
- Garate, Justo. 1972. Dos raíces geminadas en el vocablo «Guipúzcoa». *FLV* 1. 133-148.
- Gavel, Henri. 1921. Éléments de phonétique basque. *RIEV* 12(1). 1-536 (1. argit., Paris: Édouard Champion, 1920).
- González de Durana, Francisco Javier & Kosme Barañano. 1981. Relación toponímica general de Galdácano. *Kobie* 11. 469-496.
- Gorrochategui, Joaquín. 2023. La mano de Irulegi, un singular epígrafe vascón del siglo I a.C. [hitzaldia, 2023-4-18]. *Begiradak Hitzaldi Zikloa*. Gasteiz: EHU. <https://ehutb.ehu.es/video/64412af3af19239c741221e3> (2023-08-06).
- Hualde, José Ignacio. 2006. Analogy and other types of non-phonetic change in Bizkaian Basque. *ASJU* 40(1-2). 449-469.
- Lakarra, Joseba, Julen Manterola & Iñaki Seguro. 2019. *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lasa, Iratxe. 2005-2008. *Erandioko leku-izenak*. Erandio: Erandioko Udala. <https://www.toponimia.biz/erandio/?t=244&o=c&r=02&h=eu> (2023-07-31).
- Lasa, Iratxe. 2009. *Erandioko leku-izenak. Gure herriko hainbat leku-izenen bilakaera ulertzeko gida*. Erandio: Erandioko Udala.
- Manterola, Julen. 2015. *Euskal morfologia historikorako: artikulua eta erakusleak*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia. <https://addi.ehu.es/handle/10810/15848>.
- Manterola, Julen. 2023. Euskararen historia: «hasieratik» XXI. mendera arte [hitzaldia, 2023-01-11]. Arrasate: ISEA Kooperatiba Elkarte.
- Martínez de Madina Salazar, Elena. 2010. *Gasteizko toponimia III. Gasteizko Ubarrundia (Onomasticon Vasconiae 29)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Martyrosian, Hrach. 2010. *Etymological Dictionary of the Armenian Inherited Lexicon*. Leiden: Brill.
- Ménard, Martial. 2023. *Le dictionnaire diachronique du breton*. Hervé Le Bihan & Divy Kervella (zuz.). Kuzul ar Brezhoneg. <http://devri.bzh/> (2023-07-31).
- Mitxelena, Koldo. 1973. *Apellidos vascos*. 3. argit. zuzendu eta zabaldua. Donostia: Txertoa.
- Mitxelena, Koldo. 1977. *Fonética histórica vasca*. 2. argit. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia (1. argit., 1961; berrargit. *ASJUren Gehigarriak* 4, 1990).
- Mitxelena, Koldo & Ibon Sarasola. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco*, 16 lib. Bilbo: Euskaltzaindia (11. argit. elektr. 2023: <http://www.euskaltzaindia.eus/oeh>).
- Morf = Azkue (1923-1925).
- OEH = Mitxelena & Sarasola (1987-2005).
- Ros, Ander. 1999-2005. *Galdakako toponimia*. Galdakaoko Udala. <https://www.galdakao.eus/Documentos/EuskerazBizi/GALDAKAKO%20TOPONIMIA.pdf> (2023-08-06).
- Salaberri, Patxi. 2004. *Nafarroa Behereko herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- Salaberri, Patxi. 2009. *Izen ttipiak euskaraz (Onomasticon Vasconiae 26)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Salaberri, Patxi. 2015. *Araba / Álava. Los nombres de nuestros pueblos*. Bilbo: Euskaltzaindia & Arabako Foru Aldundia.

- Salaberri, Patxi & Luis Mari Zaldúa. 2020. *Gipuzkoako herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Schuchardt, Hugo. 1912. Zur methodischen Erforschung der Sprachverwandtschaft (Nubisch und Baskisch). *RIEV* 6(3). 267-281.
- Trask, Robert Lawrence. 2008. *Etymological Dictionary of Basque*. Sussex: University of Sussex. Max W. Wheelerek sarean argitaratzekoko editatua. <http://www.sussex.ac.uk/english/documents/lxwp23-08-edb.pdf> (2023/08/06).
- Trask, Robert Lawrence. 2015. *Historical Linguistics, third edition*. Robert McColl Millarek editatua. Routledge: London & New York.
- Ugarte, Félix M.^a & Iñaki Zumalde. 1976. Oinatik toponimia edo leku-izenak. *Euskera* 21. 101-108.
- Uhlenbeck, Christianus Cornelius. 1927. Baskisch *elkar*. *Mededeelingen der Koninklijke Akademie van Wetenschappen. Afdeling Letterkunde* 63. 179-182.
- Velaza, Javier. 2023. La mano de Irulegi y la epigrafía vascona [hitzaldia, 2023-02-20]. Madril: UNED. <https://canal.uned.es/video/63f4910561d0d235712bff62> (2023-08-06).
- Wartburg, Walther von *et al.* 1922-2002. *Französisches Etymologisches Wörterbuch. Eine darstellung des galloromanischen sprachschatzes, 25 lib.* Bonn, Heidelberg, Leipzig-Berlin & Bäle: Klopp, Winter, Teubner & Zbinden.

